



A ERANSKINA

Ordezko gaien egutegia eta orduak

Ez da esleipena aurrez aurre egiteko saioa egingo. Behin fisioterapeuta, terapeuta okupazional, hezkuntza-laguntzako espezialista, transkribatzaile edo materialaren egokitzaile eta zeinuhizkuntzako interprete kategorietako langileei ekainean ikastetxe esleipena egin eta gero, ondorengo egutegiaren arabera telematikoki esleitzeko prozesu batean emango dira bete beharreko lanpostuak:

A.1.- Prozesuan eskainitako behin-behineko zerrenda.

Esleitzeko diren lanpostuen zerrenda hasiera ebazpen honekin batera eranstean da B. Eranskingisa.

A.2.- Lanpostua aukeratzeko fasean derrigorrean parte hartu behar izateko mugapuntuazioa.

Hasierako ebazpen honetan argitara ematen da zein puntuaziotik gora lanpostua aukeratzeko fasean derrigorrean parte hartzen den.

A.3.- Lurralde historikoa, destinoa eta lanaldi mota aldatzea eskatzeko epea.

Uztailaren 5etik 12ra artekoa, biak barne, izango da lurralde historikoa, destinoa (lanaldi partzialentzat bakarrik) eta lanaldi mota aldatzea eskatzeko epea. Hezkuntza Sailaren web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) eskura dagoen formularioan aurkeztu beharko da eskaera.

A.4.- Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko zerrenda argitara ematea

Ordezko gaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin-behineko zerrenda argitara emango da 2019ko uztailaren 19an, ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioetarako Hezkuntza Sailaren web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

A.5.- Lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin betiko zerrenda argitara ematea

Ordezko gaiak aukeratutako lurralde historikoaren, destinoaren eta lanaldi motaren aukeren behin betiko zerrenda argitara emango da 2019ko uztailaren 23an, ikasturtearen hasierako esleipenaren ondorioetarako Hezkuntza Sailaren web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

A.6.- Lan egoeraren aldaketa.

2019ko abuztuaren 14ra arte ordezko gaiak zerrendetan haien lan-egoera aldatu ahal izango dute.

A.7.- Prozesuan eskainitako lanpostuen behin betiko zerrenda.



Esleitu beharreko lanpostuen zerrenda 2019ko abuztuaren 20an Hezkuntza Sailaren web orrian argitara emango da (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

A.8.- Parte hartzeko eskaera formalizatzeko epea.

2019ko abuztuaren 21eko 09:00etatik aurrera irekiko da irakaslegunean eskura dagoen eskaera elektronikoa betetzeko epea eta 2019ko abuztuaren 23ko 15:00etan bukatuko du.

A.9.- Esleitzeari buruzko behin-behineko ebazpena.

Behin-behineko ebazpena 2019ko abuztuaren 27an argitaratuko da 11:00etan Hezkuntza Sailaren web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

A.10.- Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak.

Behin-behineko ebazpenaren aurkako erreklamazioak 2019ko abuztuaren 27eko 11:00etatik 2019ko abuztuaren 28ko 11:00ak arte izango da.

A.11.- Behin betiko ebazpena.

Behin betiko ebazpena 2019ko abuztuaren 30ean argitara emango da Hezkuntza Sailaren web orrian (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus).

A.12.- Eraginkortasun data.

Esleitutako lanpostua 2019ko irailaren 1eko eraginkortasuna du.